BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3273

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 8koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Alegiako Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Area deklaratzeari buruzkoa.

Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 17. artikuluak bi betekizun zehazten ditu multzo jakin bat Birgaitze Integratuko Area deklaratzeko. Alde batetik, Birgaitzeko Plan Berezia behin betiko onartzen duen erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratu beharra eta, bestetik, planaren eraginpean dauden udalek Birgaitzeko Hirigintza Elkarte bat eratu beharra.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2012ko uztailaren 23ko alean argitaratu da Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko arduradunak 2012ko ekainaren 26an emandako Foru Agindua, Alegiako Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia behin betiko onartzen duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2013ko otsailaren 6ko alean, Alegiako Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia behin betiko onartu dela dion iragarkia argitaratu da.

17.2 artikuluari jarraikiz eta Alegiako Udalak Birgaitze Integratuko eremu horren kudeaketaren funtzionamenduari buruzko azalpen-memoria aurkeztu ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak espresuki onartu du ez dagoela Birgaitzeko Hirigintza Elkartea eratu beharrik.

Horiek horrela, Alegiako Herrigune Historikoan abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dira; beraz, aipatutako ingurua Birgaitze Integratuko Area deklara daiteke.

Gai horretan erabilgarri diren legeak ikusita, honako hau


XEDATZEN DUT:

Alegiako Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Area deklaratzea, Agindu honen eranskinean agertzen den planoan dagoen mugaketarekin bat eginda. Izan ere, Alegiako Herrigune Historikoaren Birgaitze Plan Berezian jasota dago eremu hori, Birgaitze Integratuko Arearen mugaketa izenarekin.

Agindu honen aurka, nahi izanez gero, eta hilabeteko epean, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 8a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.


ALEGIA
BIRGAITZE INTEGRATUKO EREMUA
CASCO HISTORICO DE ALEGIA
ALEGIAKO HERRIGUNE HISTORIKOA
AREA DE REHABILITACION INTEGRADA
BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA
BEHIN BETIKO ONARPENA
EHAA 2013/02/06 BOPV 06/02/2013
GAO 2012/07/23 BOG 23/07/2012
PLAN ESPECIAL DE REHABILITACION
APROBACION DEFINITIVA